



ZIZUR NAGUSIA
KULTUR PROGRAMA
URTARRILA-OTSAILA 2025



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



KULTURA, Zizur Nagusia
CULTURA, Zizur Mayor

Jarraiguzu ZizurArten:
www.zizurmajorcultura.es/eu



EGUTEGIA



HAUR
ANTZERKIA



HAUR
ZINEMA



ANTZERKIA



ZINEMA



MAGIA



MUSIKA



HAUR
DANTZA

URTARRILA

			1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	21	22	23	24	25	26	
27	28	29	30	31			

OTSAILA

						1	2
3	4	5	6	7	8	9	
10	11	12	13	14	15	16	
17	18	19	20	21	22	23	
24	25	26	27	28			

EGUNA

- 02 HAUR ANTZERKIA "Kutxartean" TEATRO PARAÍSO
- 03 HAUR ZINEMA "Migración. Un viaje patas arriba" BENJAMIN RENNER, GUY-LAURENT HOMSY
- 04 HAUR ANTZERKIA "La maestra" ANITA MARAVILLAS
- 11 ANTZERKIA "War Baby" YLLANA
- 16 ZINEMA "Nina" ANDREA JAURRIETA
- 18 ANTZERKIA "Artea" TXALO PRODUKZIOAK
- 24 IRAKURKETA DRAMATIZATUA "Berlin Brecht Kabarett"
- 26 MAGIA "Sensaciones" MAGO HODEI

EGUNA

- 01 MUSIKA "Plutón no es un Planeta (Cara B)" LANAI
- 02 HAUR ZINEMA "Dragoi-jagolea (Dragonkeeper)" SALVADOR SIMÓ BUSOM, JIANPING LI
- 06 ZINEFORUMA "La batalla de los sexos" JONATHAN DAYTON, VALERIE FARIS
- 07 ANTZERKIA "Un día feliz" TEATRO CHE Y MOCHE
- 14 ANTZERKIA "¡Guapa!" EL MONO HABITADO
- 21 ANTZERKIA Vaquero
- 23 HAUR DANTZA "IzAdi" EL LAGARTO BAILA
- 28 MUSIKA "Dantzari Ausarta" MIELOTXIN FOLK TALDEA

AHAL DUZUN GUZTIETAN,
EROSI ZURE SARRERAK
INTERNET BIDEZ



ESKATU AURIKULARRA
EDO BEGIZTA MAGNETIKOA
ATEZAINDEGIAN

Antolatzaileak:



Zizur Nagusiko Udala
Ayuntamiento de Zizur Mayor



Euzko Kultura Zuzendaritza
Euzko Kultura Zuzendaritza

Diru-laguntzaileak:

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Gobierno de España
Ministerio de Educación, Cultura y Deporte



PLATEA

PROGRAMA ESTATAL
DE ARTES ESCÉNICAS

L.G. NA-1369-2012. Doako zabalpena.



BILATU PROMOZIOAK!



6€

**BONUA
HAURRA**

"La maestra "
ANITA MARAVILLAS
2025/01/04



"Sensaciones"
MAGO HODEI
2025/01/26

9€

**BONUA
HELDUA**

"Berlin Brecht
Kabarett"
2025/01/24



"Un día feliz "
TEATRO CHE Y MOCHE
2025/02/07

9€

**BONUA
EUSKARA**

"Artea"
2025/01/18



"Dantzari Ausarta "
MIELOTXIN FOLK TALDEA
2025/02/28



PREZIOAK MURRIZTU DITUGU!

GAZTE ETA IKASLE

TXARTELAK (12 eta 30 urte

bitartekoentzat): 4 euroko edo

4 eurotik gorako sarreretan

%50eko murrizketa. Ez da

aplikatuko haur ikuskizunetan.

Betebeharrak: NANA eta txartela eguneraturik aurkeztea.

LANGABETUAK: Doako sarrera bat haur zinema emanaldietara haurra laguntzera joaten den helduarentzat.

Betebeharrak: NANA eta enplegua eskatzeko txartel eguneratua aurkeztea.

ALDEZ AURREKO SALMENTA

Abenduaren 19ko

09:00etatik aurrera.

1. TXARTELDEGIA

- Astelehenetik ostiralera

09:00 - 21:00

- Larunbatetan

10:00 - 14:00

17:00 - 21:00

- Igande eta jaiegunetan

12:00 - 14:00

- Ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.

2. INTERNET

www.zizurmajorcultura.es/eu

Egiaztatu zure erosketa eta ez ahaztu sarrera.

Gogoan izan, kosturik gabe



OINARRIZKO ARAUAK

Puntualtasuna: Behin ikuskizuna hasita, inork ez du sartzerik izanen aretoan.

Seinale akustikoak:

Deskonektatu beharko dira.

Grabazioak eta argazkiak:

Debekatuak daude.

Janaria eta edaria: Debekatuak daude.

Dirua itzultzea: Ikuskizuna bertan behera uzten denean soilik.

Haur ikuskizunak: Adin gomendatura doitzea aholkatzen da.

- 3 urtetik behekoek: Ikuskizuna adin horretarako denean baizik ez dute bertaratzerik izanen.
- 3tik 7 urtera: heldu batek lagunduta joan beharko dute.

URTARRILA

Osteguna

02



HAUR ANTZERKIA

Euskaraz

Kutxartean

TEATRO PARAÍSO

18:00
4€
60 min

Adin gomendatua:
4 urtetik aurrera

FETEN
SARIA 2024
KLOWN
IKUSKIZUN
ONENARI



Mundua abentura handiak bizitzeko kutxa handi bat da. Gure bi protagonistena bezala. Kutxa batzuetan bizi badira ere, ametsezko lekuetara bidaiatzea imajinatzen dute, beren sormen harrigarriak bultzaturik. Jolasean bizi dira, zenbaitetan giro onean, bestetan ika-mikan, baina berradiskidetzen dira beti; hau da, adiskideak dira. Behin batean, ordea, hirugarren pertsonaia bat agertuko da, kutxa-lapurra, eta hark bien arteko adiskidantza

jarriko du proban. Istorio dibertigarri honek erakusten digu nola itzuli, elkarrekin, zoriontsu izan ginen lekura. Bartolomeus eta Komino ohartuko dira dena lapurtu dietela, gauzarik baliotsuena izan ezik: bien arteko adiskidantza eta irudimena.

Antzerki familiarraren klasiko bat da Europako antzerki garaikidean eta, aldi berean, Teatro Paraíso Antzerkiaren 45 urteko ibilbidearen metafora.

Ostirala

03



HAUR ZINEMA

Gaztelaniaz

Migración. Un viaje patas arriba

BENJAMIN RENNER, GUY-LAURENT HOMSY

18:00
3€
82 min



Mallard familia Ingalaterra Berriko urmael batean daraman bizitza lasaia utzi eta Jamaika tropikalera doa bizitzera. Alabaina, ez zaie deus aterako uste bezala. Ezezagunari eginen diote aurre, lagunak eginen dituzte eta, bidenabar, elkar hobeki ezagutzen ikasiko dute.

URTARRILA

Larunbata

04



HAUR ANTZERKIA
Gaztelaniaz

La maestra

ANITA MARAVILLAS

18:00
4€
55 min

Adin gomendatua:
6 urtetik aurrera



FETEN
SARIA 2024
ESPazio
ESZENIKO
ONENARI

Andereñoa ausarta, trebea eta atsegina da. Haurren gaitasunetan sinesten du, guztien gaitasunetan. Andereñoak eta bere gelako ttikiek eskola eder bat eraiki dute elkarrekin basoan, animalia guztientzako tokia duen eskola bat. Gure irakasleak gehien maite duen hitza

askatasuna da, eta, beraz, bere klasea askatasunez haztea nahi du. Zoritxarrez, helduek gerra hasiko dute, eta, horren ondorioz, gure protagonistek atzean utzi beharko dute amestutako eskola, maitasunetik eta elkarren arteko zaintzatik eraikitako eskola.

Larunbata

11



ANTZERKIA

War Baby

YLLANA

20:00
12€
90 min



Yllana estilorik peto-petoenean, lan honek militarrek errekrutatzeke zentro batera eramane gaitu. Han, herrialde bateko lider berriak piztutako gerra zoro baterako entrenatuko dituzte errekluta despistatuak. Lider berria, hara, mizke hazitako

umetxo gerrazale bat da. Pertsonaia sorta ederra, zein baino zein dibertigarriagoa, eta makina bat egoera zoro, gerraren eta boterearen gaiaz aritzeko. Horra gerraren aurkako satira honen oinarria.

URTARRILA

Osteguna

16



ZINEMA

Nina

ANDREA JAURRIETA

19:00

4€

105 min

ZILARREZKO
BIZNAGA
KRITIKAREN
SARI BEREZIA
MALAGAKO
ZINEMALDIA
2024



Nina (Patricia López Arnaiz), 45 urteko emakume bat, jaio zen kostaldeko herrira itzuli da bizitza hondatu zion gizonaz mendekua hartzeko. Herria eta iraganeko oroitzapenak topatuko ditu berriro, bai eta Blas ere,

haur garaiko lagun bat. Horrek guztiak bultzaturik, Ninak bere buruari galdetuko dio mendekua ote den bide bakarra.

Proiektzioaren ondotik, topaketa talde artistikoarekin.

Larunbata

18



ANTZERKIA

Euskaraz

Artea

TXALO PRODUKZIOAK

20:00

6€

80 min



Sergiok estilo modernoko margolan bat erosi du dirutza handiaren truke. Marcos haren lagunak gorroto dio lanari eta ez du sinesten Sergiori hura egiazki gustatzen zaionik. Hirugarren adiskide bat, Ibon, bitartekaritza lana egiten saiatuko da Marcosen eta Sergioren artean. Arte modernoari buruzko hasierako eztabaida hark lagunaren arteko liskar gogorra piztuko du. Inor ez da orain margolanaz oroitzen. Azkenean, gatazkaren egiazko zergatiak azaleratuko dira.

Ostirala

24



IRAKURKETA
DRAMATIZATUA



Berlin Brecht Kabarett

20:00
6€
80 min

Dramaturgia eta zuzendaritza: Pedro Miguel Martínez
Pianista: Francesco Casali **Interpreteak:** Aurora Moneo,
José María Asín, Marta Juaniz, Txori García Uriz, Leire Ruiz,
Iratxe García Uriz, Pablo Salaberri, Maiken Beitia, Oier Zuñiga



"Mackie Navaja"ren doinuek kabaret giroan barneratuko gaituzte, baina baita gangster giroan ere. Eta berehala Bertolt Brecht maisuaren hitzek astindu ederra emanen digute gure jarlekuan: *Ez ezazue ohikoa gauza naturalizat hartu, zeren, desordena, nahasmendu antolatua, arbitrariedade eta gizatasun gizagabetua nagusi diren garaietan, ezerk ere ez baitu natural iruditu behar, ezerk ere ez baitu aldatzeko ezinezkoa iruditu behar.* Agertokian, bederatzi aulki, piano bat, testuak harat-honat, eta

aktore talde bat, sekulako egiak esaten dituzten testuak irakurtzen eta abesten, guztiak ere Brechtek onduak.

Wesker eta Txekhovekin egin zuten bezala, antzerki unibertsalaren idazle handi horren testu gehiago irakurtzeko gogoia piztea da aktore taldearen asmoa, bai eta haren testuetatik ikastea ere, idatzi zirenean bezain beharrezkoak edo are beharrezkoagoak baitira gaur egun.

Antzezenaren ondotik, topaketa talde artistikoarekin.

Igandea

26



MAGIA
Gaztelaniaz



Sensaciones

MAGO HODEI

18:00
4€
80 min

Adin gomendatua:
5 urtetik aurrera



Hodeik erronka berriari heldu dio: teknologia berriak aztertzeari, hain zuzen. Eszenaratze oso bisualaren bidez eta magia-saio txundigarriak eginez, magoak hainbat gai landuko ditu, hala nola zibersegutasuna, teknologiaren erabilerak eta hark gizartean duen eragina. Isilik, showa hastera baitoa! Eta orduan... mugikor batek jotzen du!

Larunbata

01



MUSIKA

Plutón no es un Planeta (Cara B)

LANAI

20:00
6€



LaNai, Naiara Ruz nafarraren proposamen musikala da (gitarra akustikoa, ukelelea, perkusioa eta ahotsa). Proiektu honetan, Jorge Perianes "Jorgito" (kontrabaxua),

Carlos Colina (pianoa, hammond organoa, gitarra akustikoa eta ahotsa) eta Raúl Elizalde (gitarra elektrikoa eta gitarra akustikoa) musikariak ditu lagun.

Igandea

02



HAUR ZINEMA

Euskaraz

Dragoi-jagolea (Dragonkeeper)

SALVADOR SIMÓ BUSOM, JIANPING LI

18:00
3€
99 min



Garai ilunak dira Txina inperialean. Antzina, gizakien lagun eta aliatu jakitsuak ziren dragoiak urteetan zehar jazarriak eta ziegetan giltzapetuak izan dira. Mendietako gotorleku urrun batean, neskato batek azken dragoiari ihes egiten laguntzen dio eta, elkarrekin, altxorrik preziatuena berreskuratzeko misio zoragarri batean abiatuko dira. Izan ere, hilezkortasuna lortzeko ahalmen magikoa eskuratu nahi duen azti gaizto batek lapurtutako azken herensuge-arrautzaren bila joanen dira.

Osteguna

06



ZINEFORUMA

La batalla de los sexos

JONATHAN DAYTON, VALERIE FARIS

19:00

2€

121 min



Antolatzaileak:



COMISIÓN DE IGUALDAD
AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR
ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN
BERDINTASUNERAKO BATZORDEA



KULTURAK, Zizur Nagusia
KULTURA, Zizur Nagusia

Filmak Billie Jean King eta Bobby Riggs tenislarien arteko norgehiagoka kontatzen du: bata emakumea; bestea, gizona. Partida 1973ko irailaren 20an jokatu zen. Hura sekulako gertakaria izan zen, bai kirolean,

bai gizarte arloan, bai politikan. Mundu zabaleko 50 milioi pertsonak zuzenean ikusi zuten, telebistaz.

Ondoren solasaldia Maria Castejón
Leorzarekin, historialaria eta zineman aditua.

Ostirala

07



ANTZERKIA

Un día feliz

TEATRO CHE Y MOCHE

20:00

6€

90 min



Kontzertuak musika zingaroa ekarriko digu, zoramenez eta grinaz betea, Poliedrich familiaren abentura tragikomikoak eta XX. mendeko hondamendiak zeharkaturik: Gerra Handia, Errusiako Iraultza, II. Mundu Gerra... orainaldi ziurgabe baina

itxaropenez beterikora iritsita, zeinean mamuek berek ere badute zer esan edo zer kanta. Musika, keinu antzerkia, testuduna, inprobisazioa, umorea eta dibertsioa erruz, ikuskizun arras dibertigarrian.

Ostirala

14



ANTZERKIA

¡Guapa!

EL MONO HABITADO

20:00

12€

75 min

inaem

PLATEA

PROGRAMA ESTATAL
DE ARTES ESCÉNICAS



XX. mendearen hasieran, fenomenoen ikuskizunek arrakasta handia izan zuten. Ikusleek ordaindu egiten zuten munstrozko izakiak ikusteko. Orain, izaki horietako bat, Mary, zeinari "munduko emakumerik itsusiena" eta emakume bizarduna deitzen baitzioten, agertokira igotzen da, bere istorioa kontatzera; barre egin, gozatu, eta desioak eta grinak

zituzten emakumeak zirela azaltzera. Pertsonaia historikoak, pertsona arraroak eta antzezleak berak hitza hartzen joanen dira edertasunaz –dela agerikoaz, dela ezkutukoaz– hitz egiteko. Ikuskizun honetan, pertsonak pertsonen begiratzen diete baina ez dituzte ikusten. Ezberdintasunaz eta berdintasunaz mintzo zaigun proposamena.

Ostirala

21



ANTZERKIA

Vaquero

20:00

8€

90 min



JJ Vaqueroren bakarrizketa, Charlie Díazek aurkeztua. Vaquero komikoa ez da itzulingurutan ibiltzen agertokira igotzen denean. Mihia laxorik, eta zuzenean mamia heldurik, agertokian azaltzen den unean bertan egiten du bat publikoarekin. Valladolideko aktore, komiko eta gidoilariak 15 urtetik gorako eskarmentua du umoregileen zirkuitu profesionalean. Emanaldietan bere eguneroko bizitza izaten du hizpide, ahoan bilorik ez duela. Familia, lagunak, lana, den-dena zaio egoki bizitzaz umorearen bidez mintzatzeko.

Adibidez, Vaquerok dio bizitzak bullying egiten diola eta egoera horiei buruzko xehetasunak ematen ditu, izan bere alabekiko harremana, izan telebistako urrutiko aginteari aurre egiten dionean. Hala ere, bizitzaren alde komikoa aurkitzea lortzen du beti eta publikoarekin partekatzen du. Ikusleek barre konplizeen bidez, irri karkailaka eta txaloka itzultzen diote hura guztia.



Igandea

23



HAUR DANTZA

IzAdi

EL LAGARTO BAILA

18:00
6€
35 min

Adin gomendatua:
1-6 urte



"IzAdi" natura da euskaraz; oda bat da zentzumenen munduari, paisaia soinudun bat eta zentzumenezko bidaia bat gorputzaren hizkuntza primitiboaren bidez. Mugimenduz, kolorez, soinu eta ehunduraz betetako eta arima ferekatzen duten olerki bisual laburrak ikusiko ditugu bata bestearen atzetik. Antzokira datozen familiek esperientzia intimu, sentikor eta xamur bat bizitzeko aukera izanen dute, soinu eta ikusizko estimuluetan aberatsa den giroak sustatua. Esperientzia estetiko atsegina familia guztiarentzat.

Ostirala

28



MUSIKA
Euskaraz

Dantzari Ausarta

MIELOTXIN FOLK TALDEA

20:00
6€



egon dira musikaz beteak: txistua, gaita, akordeoia... Doinu tradizionalekin jarri gaituzte dantzan: jota, arin-arina, zortzikoa, mutildantzak edo jauziak... Alabaina, gaur egun, gero eta gutxiago dantzatzen da instrumentu horien ariora, eta jarrera geldia dugu, sare sozialetan gertatzen

Ai dantzari handia... Nor izango ote da gaurko ikusle ausarta? Zer da gure musika zuen dantza gabe? Musikariontzat hori bai bakardade. Esaldi horiekin hasten da Mielotxin folk taldearen kontzertua, haien bidez gogoeta eragiteko guran. Gure plazak beti

denaren antzera, hau da, ikusle eta behatzaile hutsak gara. Mielotxinek, **Hutsun txalapartarekin** eta **Lauarin** taldearekin batera, "Dantzari Ausarta" ekarriko digu eta gure eskuetan uzten du zer izan nahi dugun; ikusle edo dantzari.